

2024 - 2026



HARROBI

EUSKARAREN
AITORTZA-DIPLOMA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜÍSTICA

1

Zer da HARROBI?

Eusko Jaurlaritzak ematen duen diploma ofiziala, publikoa eta doakoa da eta arlo sozioekonomiko pribatuan euskararen erabilera, kudeaketa eta konpromisoa aitortzen ditu.

Era berean, Harrobi diploma Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak kudeatzen duen **aitortza-sistema integral baten katebegia** da. Orain arte indarrean egon den **ziurtagiri eskema** hizkuntzaren kudeaketan maila aurreratua duten erakundeei zuzenduta egon da. Bere ezaugarriengatik, ematen duten zerbitzuagatik, edota erakunde txikiak edo baliabide gutxikoak izateagatik Bikain ziurtagiri-maila bat eskuratzetik ez duten erakundeen lana aitortzea da Harrobiren helburua.

2

HEL BU RU AK

- Bikain ziurtagiri-maila bat egiaztatzeko aukerarik ez duten erakundeetara egokitutako ebaluazioa eskaintzea eta horiek euskararekin duten konpromisoa aitortzea.
- Esparru sozioekonomiko pribatuan euskararen erabilera, presentzia eta kudeaketa indartzea.
- Bikain ziurtagirien harrobia sortzea.
- Entitateei laguntza ematea euskararen erabileran aurrera egin dezaten.
- Entitateek egindako lanaren eta ahaleginaren aitortza egitea eta berme instituzionala eskaintzea.

NORK eska dezake HARROBI ebaluazioa?

3

- Beren jarduera Euskal Autonomia Erkidegoan duten esparru sozioekonomikoko erakunde pribatuek, osorik edo partzialki.
- Boluntarioekin jarduten duten elkarteek, eta boluntario horiek ere erakundearen partetzat hartuko dira ebaluaziorako.

NOLA lortu HARROBI aitortza-diploma?

HARROBIko ebaluazioa jasotzeko, entitateek emango zaien eredu baten arabera egindako aurkezpen dokumentua egin behar dute. Ondoren, ebaluatzaile baten ikuspegia eta kontrastea jasotzen dute euskararen erabileran aurrera egiten laguntzeko. Gainera, kanpoko ikuspegi hau jaso ondoren, baldintzak betetzen badituzte, diploma eskuratuko dute eta aitortza egingo zaie Eusko Jaurlaritzak antolatutako ekitaldi publiko batean.

4



5

NORK ebaluatzen du?

Harrobi ebaluazioak Eusko Jaurlaritzak homologatutako erakundeek egiten dituzte, eta beraiek egiaztatzen dute entitateak Harrobi aitortza-diploma lortzeko baldintzak betetzen dituen.

ZEIN da HARROBI aitortza-diplomaren indarraldia?



6

Harrobi diplomak **hiru urteko indarraldia** du.

Diplomaren indarraldia bukatzen denean, erakundeak berriro eska dezake ebaluazioa. Halaber, Harrobi ebaluazioari dagokion ebazpena eman eta 12 hilabeteko epea igaro ostean, Bikain Euskararen Kalitate-ziurtagiria eskuratzeko prozesuetan parte har dezake.



Harremanetarako:

Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritza
945018109 / 945018115 / 945019487

bikain@euskadi.eus

HARROBI lortzeko BALDINTZAK

ZERBITZU-HIZKUNTZAN, BI BALDINTZA BETE BEHAR DITU ERAKUNDEAK

1. **Erakundearen irudian:** ingurune digitalean, errotuluetan, publizitatean, jendaurreko ekitaldietan eta erakundearen irudia osatzen dutenetan euskararen erabilera gutxienez % 25ekoa izatea.
2. **Herritarrekin harremanak:** harrera egiteko eta idatzizko eta ahozko harremanetarako euskararen erabilera bultzatzeko irizpideak izatea, eta elementu hauetan gutxienez % 25ean euskaraz ere eskaintzea.

LAN-HIZKUNTZAN, ONDORENGO BALDINTZETATIK **BAT** BETE BEHAR DU, GUTXIENEZ

3. **Barne komunikazioan eta lan-tresnak:** lanari lotutako hizkuntza paisaian, langileen arteko ahozko eta idatzizko harremanetan, lan-tresna eta aplikazioetan euskara erabiltzeko pausoak ematea.
4. **Pertsonen kudeaketa:** gehien erabiltzen diren dokumentu eta komunikazioetako batzuetan euskara ere erabiltzea.
5. **Kanpo harremanetan** irizpide batzuk izatea administrazioekin eta enpresa pribatuekin (bezero zein hornitzaileekin) euskara erabiltzeko, ahoz eta idatziz, eta harreman hauetan euskara erabiltzea % 15ean, gutxienez.
6. **Kudeaketa-sistema:** erakundeak euskarari lotutako helburuak izatea, irizpideak zehaztuta, ardurak banatuta eta baliabideak aurreikusita. Langileen hizkuntza-gaitasuna hobetzeko ekintzak izatea.

NOLA eskatu HARROBI ebaluazioa?

Eskaera Eusko Jaurlaritzako egoitza elektronikoaren bidez egin behar da:
<https://www.euskadi.eus/ziurtagiria/bikain-harrobi/web01-tramite/eu/>

Behin eskaera onartu eta gero, Bikain aplikazioa erabili behar da ebaluazio-prozesuari dagozkion lanak egiteko:

<https://www.euskadi.eus/harrobi-ebaluazio-prozesuan-partehartzeko/web01-a2harrob/eu/>

Egin eskaera!

2024 - 2026



HARROBI

EUSKARAREN
AITORTZA-DIPLOMA